

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

1,7 milioi bideratuko dira landa eremuetan nekazaritzaz besteko enpresak eta jarduerak sortzera

Laguntza hauek 2014-202ko LGPari atxikita daude, eta FEADERen % 31ko kofinantzaketa dute

Asteazkena, 2018.eko abenduak 12

Nafarroako Gobernuak gaurko bileran hartutako erabakiaren arabera, baimena eman dio Landa Garapen, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiar 1,7 milioi euroko urte anitzeko gastua egiteko konpromisoa har dezan, landa eremuetan nekazaritzaz besteko enpresak eta jarduerak sortu eta garatzeko xedez. Laguntza hauek 2014-202ko Landa Garapenerako Programari atxikita daude, eta FEADERen (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa) % 31ko kofinantzaketa dute.

Zehazkiago esanda, 1.022.203 euro nekazaritzaz besteko jarduerak sortu eta garatzeko inbertituko dira (2021eko aurrekontuari atxikita), eta beste 745.514 euro, landa eremuetan nekazaritzaz besteko enpresak sortzeko (372.757 euro 2020an eta beste horrenbeste 2021ean).

Gogoan izan behar da, Europar Batasuneko erakundeek 2015ean onartutako LGPak honako jarduera-ildoak biltzen dituela: jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzea, ingurumenari eta klimari eustea, landa ingurune bizi-kalitatea, eta ezagutzaren eta berrikuntzaren transferentzia.